

Mikel Irizar

## Un certain regard

D

enboraren joanean, politika bihurtu da hauteskudetik hauteskundera alderdiek egiten duten ahalegina, hurrengo argazkian hobeto irteteko. Alboan legoke gestio publikoa; baina honek alderdiei ez die aparteko mesederik egiten, ez bada aginteen arteko mesede trukean, edo propio antolatutako *mesederen* batek.

Eta, hala ere, behar dugu politikaz hausnarketa, ekimen mesedegarriez gaindi, hurrengo hauteskundeetatik harago. Bestelako begirada bat etorkizunari.

**ESKUALDE ETA ALDUNDIA.** Ez da ikusi nahi baina EAEn –noski, autonomia erkidegoaz ari naiz– egun ditugun aginte koskek (Udala, Aldundia, Jauriaritza) oso egitura ez-eraginkorra osatzen dute. Gestioak gai gehienek –zaborra, kultura, ur, errepede edo lurraren antolamendua– udalaren esparrua gainditu dute dagoeneko. Eta oso modu teknikoan hasi zaie udalen gairik egiturei “unitate funtzional” eta antzekoak deitzen, aspaldiko kontua direnean eskualdeak.

Sendotze aldera, eskualdea bihur daiteke hauteskunde-esparru, eta hortik eratorri eskualdeko agintea eta ordezkaritza goi mailetan. Eta eskualdeen aginpidea, udalei baino gehiago aldundiei kendu. Izan ere, aldundiak galdu egin du bere funtzionaltasun historikoa, egitura goragokoak sortu direnean. Nire aburuz, zerbitzuak eta antolamendua eskualdeei dagozkie; ogasuna eta azpiegiturak, Jauriaritzari. Gera bitez lurralde historikoak historiarako, eta presta ditzagun egitura funtzionalagoak etorkizunerako.

**ZAZPIAK BAT ETA HIRUAK BAT.** Azken mugimenduen ondoren, garai bateko “zazpiak bat” aldarriak une honetan “hiruak bat” behar luke. Hegoaldeko bi esparruak baditugu, Iparraldekoa falta. Gero beharko da esparru bakoitzean elkarrenganako indarrak sortzea eta metatzea. Horretarako, NaBai oso eraginkorra izan daiteke Nafarroan, eta Euskal Herria Bai Iparraldean, bakoitza



DANI BELANCO

bere esparruan sortutako metak baitira. Eta EAEn komeniko da gure zatiari dagokion parte ganoraz eta umiltasunez egitea, harrokeria inperialak ahaztuta.

**INDEPENDENTZIA ETA KOMENENTZIA.** Espainiatik eta Frantziatik arazoak gehiago badatozkigu mesedeak baino, komenigarri izan dakiguke independentzia. Hobeto bizitzeko komenentzia errazago partekatuko dugu egungo euskal herritarrok, Noaingo borrokan galdutakoa berreskuratzeko aldarria baino. Gehiengoari komeni zaigun neurrian sostengatuko dugu independentzia, eta hori gertatzen denean ezagutuko digute kanpotik besteengandik banatzeko eskubidea. Ez lehenago, eta ez alderantziz.

Nazioartean nekez egingo dugu bidea esanaz: “Herri bat garelako badugu erabakitze eskubidea, eta hori aitortu egin behar diguzue. Gero ikusiko dugu zer egin eskubide horrekin”. European erruz gertatzen ari diren independentzia prozesuei ondo erreparatu behar diegu, gurea egokitze. Horren arabera, nire ustez, beste hau da ildo: “Gehiengo handi batek independentzia nahi dugu, estatu berri bat sortzeko European. Esaguzue zer urrats egin behar dugun. Kontuan izan, aspaldian bagenuela estatua, Nafarroa”.

**MARKAK ETA MARKETINGA.** Ez dut zalantzarik. Izateko inongo aukerarik izango badugu etorkizunean, hori Nafarroa izenpean izango da. Marketing aldetiko posizionamendu onena duen marka da. Eta on litzateke norabide horretan mugitzea. Utz dezagun “Euskal Herria” munduko euskaldunak batzen gaituen nortasun komunitatearentzat. Oraingoz, gorde dezagun “Euskadi” lurralde baskongadoentzat, eta has gaitzen gaitetik Mendebalde kontzeptua jartzen. Horrela, noizbaiteko Nafarroa independentea honako hauen bilkura litzateke: Nafarroa Garaia, Mendebalde eta Iparralde. ■

Azken mugimenduen ondoren,  
garai bateko ‘zazpiak bat’ aldarriak une  
honetan ‘hiruak bat’ behar luke.  
Hegoaldeko bi esparruak baditugu,  
Iparraldekoa falta. Gero beharko da  
esparru bakoitzean elkarrenganako  
indarrak sortzea eta metatzea